## 'Gaztetxulo' aldizkariaz

ETB1 • 21:00etan

Donostiako *Irutxulo* herri aldizkariko atal bat izan da urte erdiz, baina hemendik aurrera bi orrialdeak hilabetekari soltea izango dira.




## ETB 1

06:50: **Axut.**
07:20: **Superbat**.
Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Superheroiak', 'Mamu harrapariak', 'Kapitain Planet', 'Pottokiak', 'Martitzeko Motosaguak', 'Mutanteen liga'.
09:40: **Mendeari begira.**
Dokumentala.
10:40: **Goenkale.**
11:25: **Ikusgela.**
12:25: **Euskal Herritik.**
12:55: **Iparraldearen orena.**
Iparraldeko albistegia.
13:05: **Tom eta Jerry.**
13:30: **Gaur egun.**
14:20: **Goenkale.**
15:05: **Axut.**
15:30: **Hamaika korapilo.**
17:05: **Hartz zuria: Artikoko jauna.** Dokumentala.
17:55: **Iparraldearen orena.**
18:05: **Superbat.**
Ikusgela, 'Candy, Candy', Supernet.
19:15: **Euskaraokea.**
20:00: **Gaur Egun.**
20:50: **ETB Kirolak.**
21:00: **Bertatik Bertara.**
21:40: **Goenkale.**
22:25: **Pilota: Eskuz Binaka.**
**Etxaniz-Lasa III / Eugi-Santi.**
23:30: **Pilota: Eskuz binaka.**
Haritz-Sukia / Gonzalez-Almandoz.
00:30: **Boxeo izarra.**
Don Reid-J. Cooker / F. Maywether-A. Manfr.
01:50: **Elkartasunaren bideak.**
02:25: **Nafarroako basabizitza.**
02:55: **Duplex.** Telesaila.
03:25: **Nire bi aitak.**
03:50: **Gizon traketsak.**
04:15: **Axut.**
04:45: **Hamaika korapilo.**
06:15: **Ikusgela.**
06:45: **Euskal pintore eta eskultoreak.**
07:20: **Irabazteko jaioak.**

## ETB 2

07:35: **Palabra de ley.**
08:05: **Del pais de los vascos.**
08:40: **Ruth Rendell.**
09:35: **El show de Jeff Fowworthy.**
10:00: **Forum.**
10:25: **Zinema.**
**El siete machos.** Zuzendaria: Miguel M. Delgado. Aktoreak: Mario Moreno, Alma Rosa Agirre.
12:10: **A mediodía.**
12:30: **La Cocina de Pedro Subijana.**
12:45: **Pacific Blue.**
13:35: **La botica de la abuela.**
14:00: **Información territorial.**
14:28: **Teleberri.** Albistegia.
15:20: **ETB Kirolak.**
15:50: **Lo que faltaba.**
18:10: **Roseanne.**
18:35: **Bugs: operaciones especiales.** Telesaila.
19:35: **Pacific Blue.**
20:20: **Todo o nada.**
20:58: **Teleberri.**
22:00: **Boulevard.** Eztabaida saioa.
01:00: **Cine 2.**
**Placeres.** Aktoreak: Joanna Cassidy, Linda Purl, Pamela Segall. 1986.
02:35: **Cine 2:**
**Anatomia de un asesinato.** Zuzendaria: Otto Preminger. Aktoreak: James Stewart, Lee Remick, Ben Gazzara. 1959.
05:10: **Amaiera.**

## gaurko filmak

*Ane Muñoz*

■ **HANUSSEN, EL ADIVINO.** Alemaniak Israelekin egindako ekoizpen interesgarria da, Klaus Maria Brandauer ezagunak protagonizatua eta haren lankide izandako Istvan Szabok zuzendua. Hanussen, Lehen Mundu Gerraren garaian zauritu duten soldadu bat da. Etorkizuna aurreikusteko gaitasun berezia duela ohartzen denean, alde batera eta bestera mugituko da, igarle bezala lan eginez. Nahikoa bitxia da, eta merezi du.

■ **LOS INTOCABLES.** Intrigazko zinta zahartxo hau, *Las Vegas 1970* izenburuarekin estreinatua, John Cassavetes eta Geena Rowlands bikoteak protagonizatu zuen, Peter Falk (*Colombo*) betokerrarekin hirukote erakargarria osatuz. Las Vegasko kasino handi baten inguruan girotua, preso ohi baten eta mafioso talde arriskutsu baten arteko enfrentamendua erakusten du. Erraz ikusten da.

■ **ANATOMIA DE UN ASESINATO.** Otto Preminger maisuak zuribeltzean filmatutako harribitxi ederra, Wendell Mayesen gidoi landu eta azkarra oinarritzat duen auzi-drama zoragarria da. Hilketa baten eragilea izateaz akusatzen duten gizon baten emazteak, haren errugabetasuna froga dezakeen abokatu baten bila dabilela, James Stewart jauna topatuko du. Stewartek antzezpen bikaina egiten du, gainontzeko aktoreek bezala.

■ **COMENZAR DE NUEVO.** Alan J. Pakula hil berriak Burt Reynolds eta Jill Clayburgh izarrak deitu zituen 70eko hamarkadaren amaieran komedia arin eta entretenigarri hau filmatzeko. Idazle baten gorabehera sentimentalak erakusten ditu. Azpimarratzekoa da Swen Nykvisten argazkia.



ARTXIBOKOA

**Harrison Ford eta Julia Ormond dira Sabrina filmeko protagonista nagusiak.**

### *Klasiko gozagarri baten 'remake' diskretoa*

■ **SABRINA (Y SUS AMORES).** Hollywooden, nonbait egungo gidoigileen irudimen eta ideia lehortearekin larrituta, klasiko zaharren *remake*-ak egiteko moda sortu dute. Azken hilabeteotan, adibidez, *Psicho* zoragarria berregin dute, imitazio huts eta arrunta, portzierto. Zentzugabekoa deritzodan moda horren aitzindarietako bat duzue, hain zuzen, lerroon bitartez gomendatu nahi dizuedan melodrama erromantiko goxo, samur eta hunkigarri hau. Billy Wilderrek Audrey Hepburn eta Humphrey Bogart izarrekin egindako *Sabrina* gozagarriaren *remake* hau zuzena da, baina, nire ustez, alferrekoa, hura berrikustea nahikoa baitugu bertsio berriak eskaintzen duen plazerraz gozatzeko, edota plazerra areagotzeko. Ez dio ezer berririk gehitzen Wilderren maisulanari, baina, gutxienez, aktore erakargarriei esker atsegin eta polita da. Harrison Ford eta Julia Ormondek jokatzen dituzte rol nagusiak.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **El siete machos** | ♠♠ | **Le chêne (JBA)** | ♠♠ |
| Miguel M. Delgado | 10:25 ETB2 | 1992, Lucian Pintilie | 00:05 Arte |
| **Los intocables** | ♠♠ | **La chair de l'orchidée** | ♠♠♠♠ |
| 1967, Giuliano Montaldo | 11:00 La2 | 1975, Patrice Chereau | 00:40 F2 |
| **La leyenda de Cadillac Jack** | ♠♠ | **Placeres** | ♠♠ |
| 1998, David Burton Morris | 16:00 T5 | 1986, Joanna Cassidy | 01:00 ETB2 |
| **Mad Dogs** | ♠♠ | **Duermete niño** | ♠♠ |
| 1996, Larry Bishop | 21:00 C+ (f) | 1993, Jorge Montesi | 01:30 TVE1 |
| **Anaconda** | ♠♠ | **Comenzar de nuevo** | ♠♠♠ |
| 1997, Luis Llosa | 22:00 C+ (e) | 1979, Alan J. Pakula | 01:55 A3 |
| **Sabrina (y sus amores)** | ♠♠♠ | **El valle de Abraham** | ♠♠♠ |
| 1995, Sidney Pollack | 22:00 T5 | 1993, Manoel de Oliveira | 02:30 La2 |
| **Hanussen, el adivino** | ♠♠♠ | **Anatomia de un asesinato** | ♠♠♠♠ |
| 1988, Istvan Szabo | 23:05 La2 | 1959, Otto Preminger | 02:35 ETB2 |

♠ TXARRA ♠♠ ESKASA ♠♠♠ BALEKOA ♠♠♠♠ ONA ♠♠♠♠♠ BIKAINA

## irratia ◆

Arrate Irratia: FM 87.7 ● Bizkaia Irratia: FM 102.6 ● Bilbo Hiria: 96.0. ● Euskadi Irratia: OM 1.161 ● Euskalerria Irratia: FM 91.4 ● Herri Irratia: FM 99.8 / OM 1224 ● Gure Irratia: FM 106.6 ● Irulegiko Irratia: FM 91.08 ● Segura Irratia: FM 89.2 ● Xiberoko Botza: FM 88.8 ● Xorroxin Irratia: FM 107.5.

**Gure Irratia.** Goizeko 10:30etatik aurrera *Bertako portuan* magazina izanen da 13:00etara bitartean. Eguneko prentsaren errepasoa eginen dute magazinean, eta, halaber, asteburuko agenda eskainiko dute, Inauterietako ekitaldiena bereziki. Eguerdiko 12:00etan eta 12:30etan albistegiak izanen dira. Arratsaldean, 18:00etan *Aldizkarietan zehar* irratsaioa iritsiko da Gure Irratira, eta 20:00etan *Erne*, gazteentzako magazina.

**Euskadi Irratia.** Goizeko 08:45etan egiten den politikarien tertulian Pernando Barrena, Alberto Ansola, Sabin Intxaurraga eta Xabier Gurrutxagak hartuko dute parte. 10:30etan Getxo antzokian aurkeztuko den *Kromlech* lanaren berri emango dute, eta bertara joateko sarrerak banatu ere egingo dituzte. 11:00etan, berriz, Bilboko Inauterietan Zarandolas pertsonaiarena egingo duen Loli Astoreka aktorea elkarrizketatuko dute. Ondoren, *Goizean Behin* irratsaioko lan taldea Zornotzan ireki berri duten birziklatze enpresan sartuko da. Eta gaurko saioarekin amaitzeko, Iñigo Perurenaren lagun koadrilak asteko albiste bitxien errepasoa egingo du.